

**2016KO AZAROAREN 29AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bederatzia

HILABETEA: Azaroa.

URTEA: Bi mila eta hamasei

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak eta laurdenetan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
EDORTA DIAZ DEL RIO
IRMA ARNAIZ GUILLEN
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak

KOLDO AGIRRE MUJICA
GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS

ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bilera honetan LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak, parte hartzen du. Baita ere Aitziber Yurrebaso andreak, bat-bateko itzultzaile lanetan.

1.- AURREKO AKTA. 2016ko urriaren 27ko akta onartzeko proposamena.

2016ko urriaren 27ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- KREDITU ALDAKETA: kreditu gehigarriak, 7. Zenbakia:

Ezagutzera eman da Alkatearen ondorengo proposamena:

“GAIA.- Kreditu Aldaketa. 7. Kreditu Gehigarrien Espedientea.

Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastuak egin beharra izanik eta hauek finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikoa ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 7. Kreditu gehikuntzen bidez 461.350,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.”

“Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontu saila	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketa	Behin betiko
4100.226.231.50.06	Berdintasun jarduerak/	15.310,00	1.300,00	16.610,00
1000.215.920.00.01	Sare lokalaren mantenim.	43.186,00	5.650,00	48.836,00
1000.626.920.00.01	Informazio prozes. Ekipoak	60.715,00	7.800,00	68.515,00
9000.210.153.40.01	Instalaz. Iraup. Herriko bideak	70.000,00	4.900,00	74.900,00

9000.210.134.00.01	<i>Azp. mant: Oriamendi igog.</i>	0,00	19.000,00	19.000,00
9000.210.311.00.01	<i>Txakurren parkea</i>	0,00	7.200,00	7.200,00
9000.210.161.00.01	<i>Astigarretako ur manan.lotura</i>	0,00	13.000,00	13.000,00
5000.601.153.40.01	<i>Erauskin pabiloia expropiazioa</i>	0,00	404.000,00	404.000,00
GUZTIRA		189.211,00	462.850,00	652.061,00

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarrerren kontzeptuak edota gastuen kontu-sailak	Baliabidearen kontzeptua	Sarrera handiagoak/gastuetako bajak
4100.226.924.00.06	Partehartze jarduerak	1.300,00
9000.601.165.00.03	Zebra bideen arg. Erref.	4.900,00
870.01	Gastu orok. Diruz. Gerak.	456.650,00
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA		462.850,00

Hitz egindako txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

3.- ALDIZKAKO EPEMUGA EZ DUTEN ZORREN GERORAPENERAKO ETA ZATIKAPENERAKO IRIZPIDEAK.

Ezagutzera eman da, hazienda batzordeko proposamena, hau da:

“GAIA.- Aldizkako epemuga ez duten zorren gerorapenerako eta zatikapenerako irizpideak.

2009ko azaroaren 27an onartu eta behin eta berriro luzatu den erabakiaren arrazoiek jarraitzen dute. Horregatik, hain zuzen ere, Hazienda Batzordeak Udalbatzari proposatzen dio 2.017ko abenduaren 31ra arte luzatzea lehengoko akordioaren indarraldia.

“Ekonomia eta finantza alorrean gaur egun bizi den krisialdi familietan eta enpresen eguneroko trafikoan likidezia falta eragiten ari da. Likidezia hori behar-beharrezkoa dugu gure sistema ekonomikoan dauden obligazioei, eta besteak beste, zerga arlokoiei, aurre egin ahal izateko. Hau guztiarengatik eta udal ogasunari egin beharreko ordainketak erraztearen alde kontutan izanik egungo finantza krisialdiak sorturiko ezohiko inguruabarrak, egokia ikusi da aldizkako epemuga ez duten zorren gerorapen eta zatikapenerako irizpideak arautzea..

Azaldutakoaren arabera eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 64.5 artikuluan xedatutakoaren babespean, Hazienda Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio PROPOSAMENA egiten dio:

1.- Borondatezko epean dauden aipatutako zorren ordainketa geroratu eta zatikatu ahal izango da betebeharrekoaren egoera ekonomiko eta finantzarioak, organo eskudunaren iritziz, ordainketa egitea eragozten badio aldi baterako.

2.- Ordainketak Geroratzeko eta Zatikatzeko irizpide orokorrak ondorengo hauek izango dira:

a. 800 eurotik beherako zorrak / Para deudas no superiores a 800 euros:

- Gerorapena / Aplazamiento:

<i>a.1. 100 eta 200 euro artean /De 100 a 200 euros.....</i>	<i>1 hilabete /1 mes</i>
<i>a.2. 201 eta 400 euro artean / De 201 a 400 euros.....</i>	<i>2 hilabete/2</i>
<i>meses</i>	
<i>a.3. 401 eta 600 euro artean /De 401 a 600 euros.....</i>	<i>3 hilabete/3</i>
<i>meses</i>	
<i>a.4. 601 eta 800 euro artean /De 601 a 800 euros.....</i>	<i>4 hilabete/4</i>
<i>meses</i>	

- Zatikapena/ Fraccionamiento

<i>a.5. 100 eta 200 euro artean /De 100 a 200 euros.....</i>	<i>1 hilabete /1 mes</i>
<i>a.6. 201 eta 400 euro artean / De 201 a 400 euros.....</i>	<i>2 hilabete/ 2</i>
<i>meses</i>	
<i>a.7. 401 eta 600 euro artean /De 401 a 600 euros.....</i>	<i>3 hilabete / 3</i>
<i>meses</i>	
<i>a.8. 601 eta 800 euro artean /De 601 a 800 euros.....</i>	<i>4 hilabete / 4</i>
<i>meses</i>	

b. 800 eurotik gorako zorrak / Para deudas superiores a 800 euros:

- Gerorapena / Aplazamiento:

b.1. 800 eta 12.000 euro artean /Desde 800 a 12.000..... 6 hilabete/
6 meses

b.2. 12.001 eta 24.000 euro artean /Desde 12.001 a 24.000.....12
hilabete/12 meses

b.3. 24.001 eta 36.000 euro artean /Desde 24.001 a 36.00018 hilabete/18
meses

b.4. 36.001 eurotik aurrera /A partir de los 36.001..... 24
hilabete/24 meses

- Zatikapena / Fraccionamiento:

b.5. 800 eta 12.000 euro artean /Desde 800 a 12.000..... 6 hilabete /
6 meses

b.6. 12.001 eta 24.000 euro artean /Desde 12.001 a 24.000.....12
hilabete/12 meses

b.7. 24.001 eta 36.000 euro artean /Desde 24.001 a 36.000 18
hilabete/18 meses

b.8. 36.001 eurotik aurrera /A partir de los 36.001..... 24
hilabete/24 meses.

- Organo eskudunak, kasu bakoitza aztertu eta gero, gerorapen edo zatikapena onartzea erabakiko du. Organo eskudunak, zehaztuta ez dauden ordainketa epeak onartu ahal izango ditu, beti ere zehaztuta dagoen gehiengo epea gainditzen ez den bitartean.

3.- Borondatezko epea amaitu ondorengo 12 hilabete edo gutxiagoko epeko gerorapen eta zatikapenak ez dute interesik sortuko.

4.- Berandutza eta zatikapena onartuz geroko lehen urtea igaro ondoren, zordundutako kopuruengatikoko diruaren interes legala sortuko da.

5.- Oro har, araudi honen arabera emandako gerorapen eta zatikapenetan ez da bermerik eskatuko.

6.- Epealdi bakar baten ordainketa betebeharra haustea nahikoa izango da zatikapen edo gerorapen emakida bertan behera gelditzeko eta epe exekutiboa hasteko. Horrela, geroratutako zorra, interesak eta dagokion gainkargua eskatuko dira.

7.- Araudi honetan xedatutako baldintzen arabera gerorapenak eta zatikapenak emateko Alkateari ematen zaio eskumena, Hazienda Batzordearen aurretiazko aldeko eta nahitaezko proposamenaren arabera.

8.- Araudi honen indarraldia onartua izaten den unean hasiko da eta 2017ko abenduaren 31n amaituko da."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

4.- ANTOLAKETA BERRIA. Udal organoen antolaketa berria:

- **Batzorde informatiboen osaketa, funtzio eta kopuruen aldaketa.**

Alkate jaunak proposamenaren berri eman du:

“ALKATEAREN PROPOSAMENA

BATZORDE INFORMATIBOEN OSAKETA, FUNTZIO ETA KOPURUEN ALDAKETA

AURREKARIAK

I.- Batzorde informatiboak, izaera osagarria duten organo kolegiatuak dira eta helburua, udalbatzaren osoko bilkuretan edota gobernu batzordetan erabaki behar diren gaiak aztertzea, haiei buruzko txostenak egitea edota egindako kontsultei erantzutea da.

II.- Beasaingo Udalak 2015-06-25ean egindako aparteko bileran, ondoren aipatzen diren batzorde informatiboak eratzea erabaki zuen eta hauek izan dira, hain zuzen ere, orain arte funtzionatzen jardun duenak:

- 1.- Hazienda eta ondarea*
- 2.- Udal Antolakuntza.*
- 3.- Hirigintza.*
- 4.- Kultura.*
- 5.- Turismo eta Merkataritza.*
- 6.- Zerbitzu, Landa Ingurunea eta Ingurumena.*
- 7.- Gizarte-ongizatea.*
- 8.- Parte hartzea, Berdintasuna, Migrazioa eta Hezkuntza.*
- 9.- Gazteria.*
- 10.- Hizkuntza politika.*

Kontuen Batzorde Bereziaren funtzioak, Hazienda eta Ondarea batzordeak betetzen ditu.

III.- Batzorde hauen eginkizun eta funtzioak, erlazio zuzena dute batzorde horiek hornitzen dituzten arloen betebeharrekin.

*IV.- Udalerria da, Euskal Autonomia Erkidegoko oinarritzko toki-erakundea eta herritarrek tokiko gai publikoetan parte hartzeko duten bidea, autoantolaketarako ahalmena du eta behar duen antolamendua eta administrazio- eta instrumentu-egiturak ezarri beharko ditu, **helburu** hauekin:*

- Gobernu eta administrazio onaren printzipioa benetan gauzatzeko.*
- Baliabide publikoak finantzen jasangarritasunaren aldetik modu eraginkor eta efizientean kudeatzeko.*

V.- Hiru dira udalerriaren elementuak: lurraldea, biztanleria eta antolakuntza (ELOLEKO 11. artikulua), hots:

- Lurraldea egiturazko elementua da, udalerriak bere eskumenak jarduten duen esparru geografikoa.
- Lurralde horretan bizi direnak, udalerriaren biztanleria osatzen dute.
- Udalerriak antolakuntza-arauak eragina izan ditzaten, beharrezkoak diren organoez hornitu behar da.

VI.- Udalerriak autonomi osoa du toki-interes publikoko gaiak antolatu eta kudeatzeko eta autonomia horretan ondorengoa aurreikusten da:

- **Lurraldea** antolatzea,
- **Herritarrei** zuzendutako tokiko zerbitzuak arautzea eta ematea.
- Ekimen ekonomikoa, bere zerbitzupeko langileen inguruko politika eta kudeaketa, ondarea eta diru-bilketa, eta orobat bere ogasunen baliabideak administratzea eta erabiltzea (**antolakuntza**).

VII.- Hiru esparru horiek erreferentzi modura hartuz eta IV aurrekarietan adierazitako helburuak betetze arren, proposatzen da batzorde informatiboen konposaketa, funtzioak eta zenbakia aldatzea eta hamar izatetik hiru izatera pasatzea, hots: lurraldea, herritarrak eta antolakuntza.

LEGERIA APLIKAGARRIA

- Toki Araubidearen oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea (ELOLE). 11. Artikulua (udalerria eta osatzen duten elementuak).
- 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (LILE) 8, 9, 10 artikulua (udalerriaren autonomia eta helburuak). 7, 17 artikulua (udalerrien eskumenak). 29 eta 30 artikulua (organo osagarriak eta publizitatea).
- Azaroaren 28ko 2568/1986ko Erret Dekretua, Toki Entitateen antolakuntza, funtzionamendu eta araubidea onartzea duena (ROF). 134tik 138ra doazen artikulua (batzorde informatiboen funtzionamendua).

Horren ondorioz, Alkateak ondorengo erabaki-proposamena egiten dio Udalbatza Osoari:

Lehenik. Batzorde informatiboen konposaketa, funtzioak eta zenbakia aldatzea eta jarraian adierazten diren hiru hauek osatzea: lurraldea, herritarrak eta antolakuntza.

Kontuen Batzorde Bereziaren funtzioak, Antolakuntza batzordeak beteko ditu.

Hiru batzorde hauen sorrerak, "koordinazio taldea" eratzea dakar bidez batez, gobernu taldeari laguntzeko Udalaren ikuspegi orokorragoa izaten, helburu hauetarako:

- Legealdi Planaren jarraipena egin eta batzorde informatiboen zeregina bultzatu, hura gauzatu dadin.
- Lotura izatea, udal departamentu ezberdinen arteko koordinazioa errazteko.

Talde horren eraketa Alkateren Ebazpenaren bidez egingo da. Aipatutako taldea, zinegotziek eta teknikoek osatuko dute kopuru berdinean.

Bigarren. Batzorde informatibo hauen funtzioak, LILEk udalerrii ematen dizkien eskumenen banaketa egitetik datoz. Ikus I eranskina.

Hirugarren. Batzorde informatibo guztiek, hilean behin egingo dituzte bilerak.

Laugarren. Batzordeak osatuko dira, beraietan udal talde guztiek parte hartzeko moduan, proportzio honetan:

EAJ/PNV: 4

BEASAINGO EH BILDU: 3

SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK: 1

Bosgarren. Udal taldeek bozeramailearen bitartez, idatziz proposatu ondoren batzorde ezberdinetarako ordezkariak, Alkateak ebazpena emango du, batzorde bakoitzeko zinegotzi-kideak izendatuz.

Seigarren. Batzorde bakoitzeko lehendakariaren izendapena egiteko, Alkateak Ebazpena emango du.

Zazpigarren. - Herriarren partaidetzari leku ematearren, batzorde informatiboak irekiak izango dira.

Zortzigarren. Erregelamendu organikoa ez dagoenez, batzordeen funtzionamendua, ROFen aurreikusten diren arauetara egokituko da.

I ERANSKINA

LURRALDE BATZORDEAREN ESKUMENAK

- Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina.
- Etxebizitzen plangintza, programazioa eta kudeaketa, eta babes publikoko etxebizitzaren plangintza parte hartzea.
- Udalerriarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne).
- Bidaia-herri barruko garraio publikoa –garraiobidea edozein dela– antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea, eta horien inguruko diziplina ezartzea, betiere garraioa udalerriaren barruan egiten bada osorik.
- Udal-ondare historikoa babestea eta kontserbatzea, eta babes-plan bereziak eta katalogoak egitea eta onartzea.

- Ingurumenaren babesa eta garapen jasagarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta.
- Zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea hiri-erabileradun uraren ziklo integralean. Honako hauek daude barne hartuta: uraren goi-hornidura; uraren behe- hornidura; saneamendua edo biztanleguneetako hondakin-uren eta euri-uren bilketa, eta hiriko hondakin-uren arazketa.
- Argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanleguneetako sarbideak eta kale-zoladura antolatzea eta kudeatzea, eta zerbitzu horiek ematea.
- Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza, programazioa eta diziiplina ezartzea.
- Hilerrien eta hileta-zerbitzuen antolamendua, plangintza eta kudeaketa, baita osasun arloko kontrola ere.
- Landa ingurua eta mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea, arlo horretan lurralde historikoei dituzten eskumenak eragotzi gabe. Sarbideak antolatzea eta haien garbiketa-zerbitzua ematea. 17.1.29 Eskumen hauen garapenaren inguruan:

- Giza baliabide eta materialaren antolakuntza eta kudeaketa.
- Kudeaketa ekonomikoa: aurrekontuen gauzatzea.

HERRITARRAK BATZORDEAREN ESKUMENAK

- Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna antolatzea eta kudeatzea.
- Konpainiako animalien eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien arloa antolatzea eta kudeatzea.
- Udaltzaingoa, trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea.
- Espazio publikoetan bizikidetza-harremanak antolatzea eta kudeatzea.
- Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu –motordun zein bestelako– eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziiplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko iritzitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte.
- Babes zibila, emergentziak, eta suteen prebentzioa eta itzaltzea antolatzea eta kudeatzea.
- Erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.
- Barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Hor sartzen dira, era berean, txikizkako merkataritza eta merkataritzako ekipamendu handiak planifikatzea eta antolatzea, hirigintza-

antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren arrazoizko erabilerari erantzunez, bai eta ibilgailuak eta bestelako salgaiak espazio publikoetan salerostea erregulatzea, ikuskatzea eta arlo horretako zehapen- ahalmena.

- Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea.
- Gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.
- Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.
- Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol- ekipamenduak kudeatzea.
- Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura- ekipamenduak kudeatzea.
- Tokiko turismoa sustatzea eta kudeatzea.
- Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea.
- Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.
- Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerriartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrita eta erakunde autonomikoekin lankidetzan.
- Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko eskolatzeko aldia betetzeko zaintzan parte hartzea, bai eta haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea ere. Era berean, hezkuntza-administrazioari laguntzea, ikastetxe publiko berriak egiteko behar dituen orubeak aurkitzen.
- Udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-araudiarekin bat.
- Establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
- Titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzea eta kudeatzea.

Eskumen hauen garapenaren inguruan:

Giza baliabide eta materialaren antolakuntza eta kudeaketa.

Kudeaketa ekonomikoa: aurrekontuen gauzatzea.

ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN ESKUMENAK

- Giza baliabideak: Hautaketa, lan erlazioak, ordainketak eta formazioa.
- Zerbitzu-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
- Herritarren partaidetza, gardentasuna, gobernu ona bultzatzeko eta teknologia berriak eskueran izateko azpiegiturak antolatzea eta kudeatzea. Administrazio elektronikoa, arrazionalizazioa eta prozedurak erraztea. Batez ere, herritarrek informazioaren teknologiak eta komunikazioak modu efiziente eta jasangarrian erabil ditzaten bultzatuko dute, beren udal-mugartean.
- Herritarren arreta zerbitzu integralaren antolakuntza eta funtzionamendua.
- Kontabilitate publikoa, kontrola eta kontu-ematea.
- Aurrekontuen eta kudeaketa ekonomiko-finantzieroaren kontrola eta barne fiskalizazioa. Baita kontabilitatea eta diruzaintza.
- Estatistika ekonomiko finantzieroa
- Derrigorrezko Lege aholkularitza.

- Zerga-bilketa eta kudeaketa
 - Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera.
 - Garapenerako lankidetzak alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.
 - Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo - politikak.
- **Bozeramailearen taldea osatzea.**

Alkate jaunak proposamenaren berri eman du:

ALKATEAREN PROPOSAMENA

BOZERAMAILEEN TALDEA OSATZEA

AURREKARIAK

Kontuan izanda:

1.- Udalerriak antolakuntza-arauak eragina izan ditzaten, beharrezkoak diren organoez hornitu behar da.

2.- Organo osagarriak zehaztu eta osatzeko, udal erregelamendu organikoetan edo, halakorik ezean, osoko bilkuraren erabaki bidez ezarritakoa jarraituko dute udalerriek, LILEn aurreikusitakoaren esparruan.

LEGERIA APLIKAGARRIA

- 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (LILE) 32. (organo kolegiatuak) 34. (talde politikoak eta bozeramaile batzordea) artikulak.
- Azaroaren 28ko 2568/1986ko Erret Dekretua, Toki Entitateen antolakuntza, funtzionamendu eta araubidea onartzea duena (ROF). 12 (organo kolegiatuak), 24 eta 29 (bozeramaileak) artikulak.

Horren ondorioz, Alkateak ondorengo erabaki-proposamena egiten dio Udalbatza Osoari:

Lehenik. Udal bozeramaileen batzordea eratzea, partaidetzak, funtzioak eta bileren maiztasuna, ondorengoa izango delarik:

- **Partaideak:**

Udal-talde politikoetako bozeramaileek, korporazio-buruaren gidaritzapean, bozeramaileen batzarra eratuko dute, hau da, Alkatea gehi EAJ/PNV, BEASAINGO EH

BILDU eta SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK, hiru udal talde bakoitzaren bozeramailean (titularra edo ordezkoa).

- Funtzioak:

- *Udal Aurrekontu Orokorra egiteko ekarpenak.*
- *Izaera diskrezionala duten eta batzordeetan tratatu behar diren irizpideak bateratu (adibide gisa: proiektuak, ordenantzak, hirigintza xehetasunak...)*
- *Baliabide pertsonalak arrazionalizatzeko programak (erretiroak, plazak amortizatu nahiz sortu...).*
- *Adierazpen instituzionalak, mozioak.*
- *Larrialdietan burutu beharreko ekintzak (Uholdeak, suteak...), ezinbestekoak, herritarrekin zerikusia duten ezusteak, etab.*

- Bileren maiztasuna: *bi astean behin, Alkateak deituta bilduko da.*

Bigarren. *Bozeramaile batzordearen kidea izendatzea, Alkatearen Ebazpenaren bidez egingo da, udal taldeek proposatuta."*

- **Zinegotzien ekonomia eskubideak**

Alkate jaunak proposamenaren berri eman du:

"ALKATEAREN PROPOSAMENA

Gaia: zinegotzien ekonomia-eskubideak.

AURREKARIAK

1.- 2016-06-25 (GAO, 2015-07-02). Udalbatza Osoaren erabakia ordainsariei buruz: dedikazio eskusiboa duten zinegotzienak, talde politikoenak eta órgano kolegiatuetara joateagiko asistentziak.

2.- 2016-11-21. Alkatearen proposamena, batzorde informatiboen osaketa, funtzio eta kopuruen aldatetari buruzkoa.

3.- 2016-11-21. Alkatearen proposamena, Bozeramaileen Taldea osatzeari buruzkoa.

LEGERIA APLIKAGARRIA

- *Toki Araubidearen oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea (ELOLE). 75. Artikulua (ordainsariak eta asistentziak).*
- *2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (LILE) 32,4 artikulua (toki entitateen ordezkarien ekonomia eskubideak).*
- *Azaroaren 28ko 2568/1986ko Erret Dekretua, Toki Entitateen antolakuntza, funtzionamendu eta araubidea onartzea duena (ROF). 13. Artikulua (ordainsariak).*

Horren ondorioz, Alkateak ondorengo erabaki-proposamena egiten dio Udalbatza Osoari:

Lehenik. 2016-06-25 (GAO, 2015-07-02). Udalbatza Osoaren erabakiaren C atala aldatzea, modu honetan geratzen delarik:

C.- **KORPORAZIO KIDEEN ASISTENTZIAK:**

1.- Gobernu Batzordeko kidei bileretara joateagatik ordaindu beharrekoa: 184,59 €.

2.- Batzorde informatiboetako bileretara joateagatik:

- Lehendakariak: 210,96 €.
- Udal departamentuko delegatuak: 184,59
- Beste zinegotziek: 137,12 €.

Lehendakariak kopuru hori kobratuko luke bera den batzordeetan, baina lehendakari ez den batzordeetan, 137,12 € kobratuko lituzke.

3.- Organismo autonomoetako bileretara joateagatik:

- Lehendakariak: 184,04 €.
- Beste zinegotziek: 136,71 €.

4.- Udalbatza Osoak egiten dituen bileretara joateagatik: 210,96 €.

5.- Bozeramaileen taldeak egiten dituen bileretara joateagatik: 50 €.

6.- Koordinazio taldeak egiten dituen bileretara joateagatik: 50 €.

OHARRAK:

- Gobernu Batzordeko kideei, Batzorde buruei eta Organismo Autonomoetako lehendakariei bileretara joateagatik, gehienera 11.357,80 € urteko ordainduko zaie, C atal honetako kontzeptu guztiengatik.

- Beste zinegotziei, gehienera 7.571,87 € urteko ordainduko zaie, C atal honetako kontzeptu guztiengatik.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenekiko iritzia hauek azaldu dituzte:

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “A nosotros nos parece que comprimir el trabajo de once comisiones en tres áreas de trabajo es brusco y repentino, cuando además estamos en mitad de la legislatura, nos parece que es cambiar las reglas de juego en pleno partido. Nos parece que no es bueno porque un

tema de tanto calado como el de la organización municipal debería de ser consensuado por los grupos políticos aquí representados. De lo contrario, el recorrido que tiene no es más que el de la legislatura actual, y con ello se echaría por la borda un montón de trabajo y en concreto del de los técnicos que están volcados en este tema. No sería más que una pérdida de tiempo. El partido socialista va a votar en contra de los tres puntos.”

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Guk ere neurri batean alderdi sozialistak bezala ikusten dugu. Gaur egun hamar batzorde gehi hiru fundazio ditugu. Hilean behin batzorde eta fundazioa bakoitza hilean behin bilduko balitz, 143 batzordeez hitz egiten ariko ginbateke. Historia pixka bat eginez, gu 2016ko uztailean enteratu ginen honetaz, Alkateak bilera batetara deitu gintuelako. Orduan komentatu ziguten Otxandio Otxin izeneko enpresa batekin udalaren berrantolaketa aztertzen ari zirela, gai honekiko esperientzia zuelako eta beste udal batzuetan ere funtzionatzen ari zelako sistema hau, Zarautz, Legazpi, Urnieta Ermua etab. Lehenengo momentutik guk adierazi genuen gai honetaz adostasun batetara iristeko prest geundela. Gu gobernuan geundenean Udalaren departamentu ezberdinak modu estanko batetan lan egiten dutela konturatu ginen eta ez zen egiten behar bezalako talde-lanik. Beraz, lan egiteko modua aldatzearekin ados egon gintezke, baina momentu honetan arazo larriak ikusten ditugu, hala nola: egunetik egunera handitzen doan EAJ gobernuekiko mesfidantza legealdi honetako ibilbidea ikusi besterik ez dagoelako. Batzordeetan ez dugu informaziorik jasotzen, ez zaigulako ematen eta askotan komunikabideetan jakiten dugu gaien berri. Hori gure ustez onartezina da. Gure lana oposizioa egitea da, baina hori momentu honetan ezinezkoa dela ikusten dugu. Batzorde informatzaileen gaia mamituta aurkeztu zitzaigun uztailean. Berrantolaketa eginda zegoenean aurkitu genuen. Guk EH BILDU bezala gaia landu dugu. Joan gara deitu diguzuen bilera guztietara eta baita bisitetara ere, baina sistema hau ezarrita zegoen eta beste udaletxeko zinegotziekin bildu ostean erdibideko planteamendua egin genuen, alderdi sozialistak esan duenaren arabera, iruditzen zaigulako salto handia dagoela. Hamar batzorde gehi hiru fundazioetatik sei zazpi batzordeetara pasatzeko proposamena egin genuen. Gure planteamenduari ez diezue kasurik egin eta zuenarekin temati jarraitzen duzue, besteek esandakoa entzun gabe.

Proposatzen denari buruz esan berriro, salto handia iruditzen zaigula. 143 batzorde izatetik 33 izatera pasatuko gara. Gaur egun ea ezertaz ez bagara enteratzen...!. Alde nabarmena da:!. Gu erdibidearen aldeko gara. Zalantza asko sortzen zaizkigu. Gure ustez herritarren partaidetzari ateak ixten zaio gestio eredu honekin. Hau enpresa baten efizientziari begira egindako gestio eredu bat dela iruditzen zaigu. Guk Udala, ez dugu enpresa modura ulertzen baizik herritarren onurako dagoen tresna bezala eta zinegotziok bitartekari soilak besterik ez garela uste dugu. Herritarrekin eta herritarrentzat lan egiteko oso urrun dago zuek planteatzen duzuen. Izan ere batzordeak goizez egitea planteatzen zenuten, gai zerrendak itxita egongo dira eta ordubeteko iraupena izango dute. Arazo larriena metodotik haratago doan kontua da. Jarrera kontua da eta proposamen hoberenarekin etorrita ere zuen jarreraren aldaketarik ez balego, jai dugu. Zuek inorekin kontatu gabe erabakiak hartzen jarraitzen duzuen bitartean, gu parean aurkituko gaituzue. Geroz eta batzorde gutxiago, orduan eta aukera gutxiago izango dugu, gaia sakondu eta adostasunetara iristeko. Esan dugun adibide garbiena, Udalak irailean ateratako gida da. Bertan, pleno

honetan aurkeztu den eta oraindik ere onartu gabe dagoen batzorde eraketen berri ematen da eta batzordeez gain, batzorde horien lehendakariak zeintzuk izango diren zehazten da. Gida ikusi genuenean garbi geratu zitzaigun gure iritzia kontutan izan gabe, gaia aterako zenutela. Noa da posible herritarrei gidan batean aurkeztea oraindik eztabaidatu gabeko batzordeen berrantolaketa?. Denok ulertzeko, Alkatea gurekin adostu nahian zebilenean, bestaldetik gidan batzordeen berrantolaketaren publizitatea egiten zen. Lotsagarria, gure ustez!. Lehen momentutik zuek esan zenuten oposizioarekin adostasunik egon ezean, ez zenutela batzordeen berrantolaketarekin jarraituko. Baina gure harridurarako, beste behin ere, gaur osoko bilkurara ekarri duzue gaia. Beste behin adibide honekin ere ikusten dugu EAJk gehiengo absolutuaz baliaturik ez duela ezertarako kontatzen oposizioarekin. Gu ez gatoz Udalera zuen palmero gisa ezta boikotatzea ere, behin baino gehiagotan esan duzuen bezala. Gu ona proposamenak egitera gatoz. Ahal dugunean adostasuna lortzera, baina esan dugun bezala, jarrerak aldatzen ez diren bitartean jai daukagu. Ezezkoa bozkatuko dugu.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Se dice que el cambio es brusco, pero si algo nos ha impulsado a seguir por este camino es lo siguiente: Nosotros entramos en junio de 2015 al Ayuntamiento, y ya por octubre veíamos que había áreas y cuestiones que mejorar en el Ayuntamiento, con directa vinculación con la eficiencia ya la coordinación entre los distintos departamentos. Nos encontramos con un Ayuntamiento con cuatro áreas de una sola persona que deben trabajar transversalmente con el resto de áreas. La primera reunión que tuvimos entre nosotros fue clave. Empezamos a trabajar este tema en octubre. Mediante EUDEL damos con esta persona que nos ayuda. Nos enteramos que tanto en Legazpi como Ermua, Irun, Zarautz están llevando con esta misma persona, unos cambios en el estilo. En esos municipios el inicio es impulsado por distintos partidos políticos y van hacia ese vía de centrar las áreas del Ayuntamiento en tres, como bien marca la Ley municipal que se aprueba en abril de 2016. Venimos de una forma de trabajar en la que se reúne el Alcalde con todos los técnicos, donde entendemos que la información y el trabajo solo van en una dirección. Empezamos a montar la estructura y nos da desde febrero de 2016 hasta junio. En junio ya lo hubiéramos aprobado, si realmente hubiéramos querido pasar el rodillo, pero pretendemos abrirlo porque entendemos que es necesario el consenso y el beneplácito de los distintos partidos políticos, pero bueno...Ya he dicho que para mí la primera reunión es clave porque se escuchan cosas como, ¿y todo eso vais a decir?, ¿todos esos datos vais a dar?. Yo preguntaría aquí: vamos a comisiones de bienestar social, pero ¿seríamos capaces de saber cuántas familias reciben la RGI?. Yo diría, ¿qué estamos gestionando?. ¿Sabemos qué dinero reciben esas familias?. ¿Es que somos capaces de dar esos datos?.

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Saber no sé si sabemos pero los datos están ahí y se puede preguntar.”

Alkate jaunak (EAJ): “Claro se puede preguntar pero a nosotros nos toca gestionar. Las propuestas que se hacen para dar datos, también enfocan eso. En la nueva organización se pasa a 33 comisiones, pero ¿qué se va a informar en esas comisiones? ¿Cómo se van a organizar los presupuestos, por ejemplo?. Digo que la primera reunión para mí es clave porque se escuchan cosas de los distintos grupos

municipales como, *“nosotros si hubiéramos seguido hubiéramos hecho lo mismo”*. Creemos que es imprescindible un cambio y eso es lo que nos empuja a seguir. En la segunda reunión cambio todo. Pasamos de hablar las personas a hablar los partidos políticos. En el camino, también ha habido otras reuniones, y en esas se me ha seguido transmitiendo que se ha estado con otros municipios y el camino es correcto. Habéis estado con los trabajadores del Ayuntamiento que os han hablado de la necesidad de un cambio porque bola de cristal no tenemos nadie. Tenemos la certeza de lo que se nos dice en otros municipios que esto está funcionando y que está funcionando mejor. Sobre todo en lo que a eficiencia y en lo que la coordinación entre las distintas áreas significa. Entiendo que prevalece sobre todo. Una cosa es lo que decimos aquí y otra lo que se nos transmite en las reuniones. Estoy de acuerdo en que el cambio es brusco porque da un cambio total, pero también estamos notando diferencias. En 2016-2017, ya se empieza a trabajar en proyectos de 2018. Es verdad que esto no es una empresa, pero para ser eficiente hay que funcionar como una empresa, y si no se persigue esa eficiencia el ciudadano lo percibe. Es brusco sí, pero se os pide que nos deis la oportunidad de trabajar durante un año, para saber si funciona porque de lo contrario seremos los primeros interesados en volver a la situación actual.”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Se ha dado un dato que nosotros no teníamos y es que la agenda de las comisiones se va a planificar de manera que sean por las mañanas. Si tanto interés tienes en que la oposición esté y participe...haciendo única y exclusivamente por las mañanas, excepto tú y Leire, que tenéis la dedicación exclusiva en el Ayuntamiento, ¡ya me vas a decir cómo vamos a participar los demás!.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Cada uno cree lo que quiere. Yo no he dicho eso.”

EH BILDUko zinegotziek diote beraiei pasatutako proposamenean hori jartzen duela.

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “De todas maneras el partido socialista no tiene esa propuesta. ¡No nos la habéis pasado!. Estoy especialmente sorprendido.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ese es el primer borrador. Tú también lo tienes. Desde el principio se ha dicho que, por ejemplo, “ciudadanía”, se intentará hacer por la tarde. hirigintza, ahora se viene haciendo a la una y “lurralde”, también se mantendrá a esa hora. Eso también lo he dicho, pero ¡no debo hablar muy claro!.

Esaten duzue, Koldo, adostasuna behar dela eta hori horrela da, baina bidean bilera asko egin ditugu eta galdetu dugunean aldaketa beharrezkoa den, baietz erantzuten zaigu. Horrek bultzatzen gaitu bidean aurrera egiten. Onartzen duzue modu estankoa funtzionatzen dela. Nik esan dut noiz onartu ginen horretaz. Guretzat askoz komodoagoa izango zen Alkateari eta barne antolaketari dagokionean, geunden moduan jarraitzea eta ez otsailetik lau tekniko eta lau zinegotzien arteko bilerak egiten jardun, horrek kanpotik ikusten ez den suposatzen duen lanarekin!. Baina egiten ari den lana eraginkortasuna izango duen itxaropenean gaude. Esaten duzue baita ere, bileretara etorri zaretela eta hori egia da eta eskertzen da. Esaten duzue salto handia egitea dela, baina zuek ordean, onartzen duzue “herritarrak” batzordea egotea, baina

bertan kultura, gazteria eta kirola egon gabe. Zerk bultzatzen du hori horrela izatea?. Zuen esanetan, guk proposatutakoa salto handia dela. Aldaketa egin behar bada, nola da posible, Bilbo batek lau batzordeekin funtzionatzea, Bartzelonak hiru batzordeekin eta Beasainek hamar gehi hiru. Horrek duen karga administratibo eta burokratikoarekin!. Izan ere gaiak berdinak dira eta berdin pasatu beharko dute batzorde edo bozeramaile taldetik. Beste herrietatik transmititu zaigu hor sortzen den lan deskarga izugarria dela.

Zalantzak dituzuela diozue. Guk ere bai, baina horren aurrean ere aurrera pausoak ere eman behar dira. Esaten duzue oposizio eraikitzailea egin nahi duzuela. Pentsatzen dut memoria ezabatu egiten zaigula. Guk ere lau urte egin ditugu oposizioan eta hamaika adibide daude prentsatik enteratu garen gaiez eta beno, enteratu ez garenak nahi dituzuen guztiak!. Eragin ekonomiko izugarriak izan dituztenak gainera!, eta enteratu behin udaletxean sartuta!. Nor beraren gain eta handik haratago!. Nik pentsatu nahi dut borondate ona hor dagoela eta borondate ona ez dela ezkutatzea, gurea ere ez den bezala. Gaur egin garbi dago oinarrian behintzat, eta horrela transmititzen duzue batzuk eta bestek, gaurkoak hobekuntzak behar dituela. Denborak esango du guk proposatzen duguna onerako edo txarrerako den. Bide hau hasi aurretik aholku bat eman zidaten. Nire kezka eta horrela transmititu nuen, “guk hau bakarrik egin ordez gainontzeko talde politikoek ere...”, baina honela erantzun zitzaidan: ez duzu ba pentsatuko gainontzeko alderdiek babestuko dizutenik zuk hobeto funtzionatzeko?. Hark asmatu zuen!.”

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Ez dakit ulertzen den edo ez guk esandakoa. Guk esaten dugunean adostasuna behar dela, horrela ba baina adostasuna lortzeko jarrera aldatu egin behar da. Zuek enteratu eta enteratu ez zinetenak..., gaurko hau da adibidea. Eginda duzuen gauza bat, orain dela hiru hilabete argitaratu dena..., eta gaur arratsaldean izan ditugun batzordeak enteratu gabe alderdi sozialistakoek hitza hartu duen arte eta esan duenean “gainontzeko alderdiak non gaude iritziak emateko”. Egunero ditugu horrelako adibideak. Konfiantza eskatu zenuten aurrera eramateko. Bai, baina konfiantza emateko jaso egin behar da eta hori bidean jaso ezean zaila da ematea. Guretzat hori bezain sinplea da. Aldaketa!. Noski baietz!, baina gure aldaketa ez dagoen bitartean ez funtzionatzen jarraituko dugu.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Nik egia esan, ez dakit oso ondo non galtzen naiz. Marka da!. Gida ateratzen duzue!. 2014an inondik pasatu gabe, zuek enpresa batekin adostutako gida bat. Konpromiso batzuk hartu zituztenak!. Alkateak inondik pasatu gabe eman ziona enpresa bati gida hori egiteko eta 2015eko abuztuan deitzen zaigu guri esanez, konpromiso bat zuela udalarekin gida bat egiteko. Aurreko Alkateak onartu zuen idatzi batekin, esanez denda guztietara joateko eta gida horrek udalaren babesa duela. Zuk transparentzia aipatzen duzu eta gida hori 2014tik dator, gu oposizioan geundela. Nori informatzen zaio Beasaingo Udalak gida bat egin nahi duela eta bertan kultur ekintzak etab. sartu nahi direla?. Ni ziur nago zure aldetik borondate txarrik ez dagoela enpresa bati gida hori emateko!, baina horretaz ez da inon informatzen eta 2015ean guregana etortzen da. Gida horretan ez dago udalaren ezer, esan geniolako guk ez genuela parte hartu hori egiten eta guk ez genekiela ezer. Enpresa horrek Kulturakin harremana du, udal ondarea eta azaltzen delako eta hor

jartzen den antolaketa berria langileen batek emandakoa da, ez guk emandakoa. Langile batek emandakoa pentsatuz onartuko zela. Gida adibide ona da, Koldo!, udal honetan ze ezkutatu den edo ez den esateko. Gida horretan, udal gobernuak ez du ezertan parte hartu. Zuk sinatu zenuen akordio hori, guk jakin gabe!. Kasualitatea!. Aipatu duzu, gaurko batzordea, adibide!. Pentsatzen dut Agenda 21eko batzordeaz ari zarela!. 21eko asuntza nik dakidanez behintzat, aurreko legealdian bezala, hamaika eragileekin elkartu dira, ekarpenak eskatu dituzte eta batzordetik pasatzen da ekarpenak jasotzeko. Ez dakit. Horretarako dira batzordeak, ez?. Ez dakit hor ezkutukeria non ikusten den!.”

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Nik matizazio txiki bat. Abila zara gaiak desbideratzen eta zure terrenoa eramaten, baina “tu más”, politiko txarren adibidea da. Guk gure legealdian gauzak oso gaizki egin genituen eta herritarrek penalizatu egin gintuzten hauteskundeetan. Hori da guk egiten dugun autokritika eta onartzen dugu. Baina, nahiz eta gaizki egin, zerbait ere ondo egingo genuen!. Tristeia dena da, zuk gaizki egindakoa justifikatu nahi izatea guk egin genuenekin nahastuz. Agian bakarren batek ez du ulertzen. Koldok lehen esan duena da, Beasaingo Udalak irailean publikatu zuen gida batean azaltzen dela, gaur hemen udal gobernuak proposatutakoa, hau da, jadanik irailean “rango de oficialidad” ematen zitzaion. Gaur ez da esan zeintzuk diren batzorde berrietako lehendakariak, baina guk irailean bagenekien!. Publikatu egin zen, antolakuntza batzordeko lehendakaria, Elena Ruiz dela, lurraldekoa, Leire Artola eta herritarrek batzordekoa, Xabi Matarranz. Aurpegia behar da esateko, langile batek esan ziola publikatzeko!.”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Aurpegia behar da esateko hori Beasaingo Udalak publikatu duela!. Aurpegia edo ezagutza eza!.”

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Baina informazio hori nork eman behar du, langile batek?.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ez udal gobernuak!. Berritoki esango dut, nork kontratatatu zuen gida hori?. Aurpegia behar da hori ateratzeko!.”

Aitor Larburu jaunak (EAJ-PNV): “Hau kontratatatu zenean, guk ez genekien 2016ko azaroan batzorde hauek onartu behar zirenik!.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Hark 2014an zuek onartutakoa, 2015ean etorri zen kasurik ez zitzaiolako egiten!. Hori da esan zuena eta dendekin hitzartuta zuela!. Aurpegia behar du, transparentzi eza bestei itsasteko!.

Garbiñe Zurutuza andreak (Beasaingo EH BILDU): “Gezurrez gezur zabiltza, baina nola esan dezakezu informazio hori langileak eman duela?.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ez udal gobernuak!. Eta zuek joan zarete langileei galdetzea hori nork atera zuen!.”

Garbiñe Zurutuza andreak (Beasaingo EH BILDU): “Bai zuek eta baita EH BILDUK adostu nahian ibili gara udalaren berrantolaketa hau. Lehen bi gauza esan dituzu,

baina ez dakit gutaz edota psoekotaz ari zinan. Esan duzu guk esan genizula lehenengo bilera batean, udalaren berrantolaketaren aldeko ginela. Idatziz esan dugun bezala, udalaren berrantolaketaren aldeko ginen, departamentuak estankoak direlako, taldeko lana ez delako egiten, etab. Ez genizun esan, ordea, guk berdin egingo genuela. Guk beste era batetara egiteko asmoa genuen. Garbi esan genizun zein udaletako ereduarekin genbiltzan esku artean eta zen Oñatiko udaleko eredu. Zuk esan duzu honek oso ondo funtzionatzen duela beste udal batzuetan..., beno gure iritzia ez da hori. Gu ere zuekin batea joan gara Zarautzko udaletxera, baina zuekin ez ezik gu ere bildu gara Legazpiko udalaren EH BILDUKo zinegotziarekin, Zarautzko udalaren EH BILDUKo zinegotziekin eta bertako teknikoekin ere eta ez dira zuen iritzi berdinekoak. Horregatik egin genizuen beste planteamendu bat. Erdibideko zerbait, alegia.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Zuek esan zenuten haien planteamendua zuenarekin ez zetorrela bat.”

Garbiñe Zurutuza andreak (Beasaingo EH BILDU): “Nik neronek bileretan esan nizuen, Legazpiko EH BILDUKo zinegotziekin, Amaia Barandiaran eta biok bildu ginela eta ...”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Hori da lehenengo notizia.”

Garbiñe Zurutuza andreak (Beasaingo EH BILDU): “Beno eta zer, dena esan beharra daukagu?. Guk gure gauzak nola lantzen ditugun esan beharra daukagu?”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Beno esan duzu edo ez, hori da kontua.”

Garbiñe Zurutuza andreak (Beasaingo EH BILDU): “Nik uste dut esan nuela. Azken finean da, gezurrez gezur, ezta?”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ez da gezurrez gezur. Zuk esaten baduzu beste toki batzuetan ez duela funtzionatzen jakin beharko dugu zergatik. Guk ere interesa dugu. Guk esaten dugunean zuen planteamendua seikoa dela eta herritarrek batzordetik kanpo kultura, gazteria eta kirola gelditzen direla eta zergatik?. Zuen erantzuna: eske saltoa oso bruskoa da.”

Garbiñe Zurutuza andreak (Beasaingo EH BILDU): “Guk erdibideko planteamendu bat egin genuen eta esaten genizuen sei zazpi batzorde egon behar zirela udal lege bat dagoelako eta batzorde bakoitzak informazio bat izan behar duelako. Guk planteamendu horretatik abiatuta esaten genizuen: ahaztu hirukoa eta goazen sei zazpiko eredu batekin adostasun batetara iristea. Hor atea itxita aurkitu dugu. Nik pertsonalki e-mailez bidali nizun zuri eta izan genuen bileran zuek zuenarekin jarraitu zenuten.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Zuen ezaugarrietako bat izan da, bilera bakoitzeko pertsona bat etorri dela.”

Garbiñe Zurutuza andreak (Beasaingo EH BILDU): “Zuek biok liberatuta zaudete eta gure kasuan aldiz, bakoitzak bere lana du. Bilera batzuk goizeko 10,00etan jartzen

badituzue, beste batzuk eguerdiko hiruretan..., ba ahal dugun bezala moldatu beharko gara, baina duk lan-taldean funtzionatzen dugu.”.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Beno, nik uste dut saiatu garela zuek esandako orduetara bilerak egokitzen. Liberazioak aipatzen dituzu. Kuriosoa da zeren eta transparentziarekin zer ikusia du. Zuek udal legea onartu eta Eudelen sartzeko baldintzatako bat izan zen, Beasain bezalako herri batentzat, oposizioak liberatua behar zuela. Liberatua hemen egongo balitz eta hemen lana egingo balu, etortzen zaretenean bezala, teknikarien ate guztiak irekita egongo lirateke. Zuen esku dago liberatu hori hartzea. Zuek Eudelen eskatzen duzue, baina hemen ez duzue eskatzen. Hor duzue herramienta bat, baina hori eskatzen duzue gobernuari kontrola egiteko eta hain zuzen ere hori dagokio. Hori erabili egin behar da.”

Garbiñe Zurutuza andreak (Beasaingo EH BILDU): “Beno hemendik aurrera erabiliko dugu.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ba orduan, eskatu liberazioa. Legeak aipatzen du hori eta gainera zuek proposatutakoa. Hemen transparentzi eza eta aipatzen dira, baina...Nik uste dut Santi bera dela adibidea. Hemen ibiltzen da gora eta behera ahal duen guztietan eta inoiz ez zaio aterik itxi, ez Alkatearena eta ezta ere teknikoena.”

Garbiñe Zurutuza andreak (Beasaingo EH BILDU): “Ematen du, hona bakarrik Santi etortzen dela. Gu ere etortzen gara teknikoengana, eh!. Nahiz eta udal legea egon, zuengandik informaziorik lortzen ez dugunez, etortzen gara, e-mailez egoten gara eta telefonoz ere bai. Gaiak lantzen ditugu, ez politikoekin baizik eta teknikoekin.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ateak inoiz ere ez daude itxita, baina hori da transparentzia ez?. Nik esaten dudana da noiz nahi etorri zaitezketela, ez bakarrik teknikoengana baizik eta Alkatearengana ere bai. Ez dut uste antolaketa berria, zenbaki kontua denik. Eskumen kontua da. Udal euskal legea aipatzen da eta hori da, hain zuzen ere, honen guztiaren oinarri. Udal euskal legeak 37 eskumen onartzen dizkio udalari eta eskumen horiek kudeatzen hasten gara, hiru sail ezberdinetan legeak agintzen duen bezala. Nik uste dut denborak eman edo kenduko digula arrazoia.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 8 (Beasaingo EH BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 0

Etorri gabeak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu dira, Alkateak egindako proposamenak.

5.- ERAKUNDEAREN ADIERAZPENA

Euskararen nazioarteko eguna.

Alkate jaunak (EAJ-PNV), adierazpen honen berri eman du:

“Abenduaren hirua pozik bizitzeko eguna dugu euskaldunok. Duela berrogei urte arte gizartean gainbehera zihoan euskara hazkunde nabarian jarri dugu. Batik bat belaunaldi zaharrenen hizkuntza izatetik, belaunaldi arteko hizkuntza eta, batez ere, gazteen hizkuntza izatera pasatu da. Ingurune jakin batzuetara mugatuta egotetik sekula bereak izan ez dituen esparru sozialetan ere nor izatera. Europako hizkuntza zaharrena izatetik, hizkuntza modernoa eta gaur egungo gizartera egokitua izatera.

Euskara bizitzen ari den zabalkundea gizarte osoaren nahi eta ahaleginari esker gertatu da. Norbanako askoren eta kolektibo askoren ekimenari esker. Jende askoren eskuzabaltasunari esker. Gizarte osoak proiektu kolektibo gisa bereganatu izanari esker. Konpromiso publiko eta pribatuari esker. Gizartearen adostasunari esker.

Hizkuntza-elkarbizitza gizarte-elkarbizitzaren osagai egin dugu, gizarte-kohesioaren funtsezko elementu. Hizkuntzen berdintasuna eta norbanakoaren hizkuntza-hautua herritar guztion aukera-berdintasunaren oinarrian jarri ditugu.

Euskararen Nazioarteko Eguna badugu, baita ere, indarberritzeko eguna. Izan ere, gaur egun, oraindik, bi hizkuntza ofizialen berdintasun sozialetik urrun gaude. Euskarak eta gaztelaniak, erabilerari dagokionez, legezko aitortza berdina dute, baina gizartean egoera desberdina bizi dute.

Horregatik, urratsak ematen jarraitu nahi dugu. Bi hizkuntza ditugu ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoan. Baina helburu izaten jarraitzen du, gizartean oro har, hizkuntzen arteko berdintasun sozialera iristeak. Hizkuntza-aniztasunaz harro gaudelako eta euskararekin munduko hizkuntza-aniztasunari egiten diogun ekarpenaz ere harro gaudelako. Hizkuntza-aniztasunak gure gizartea aberasten duelako, euskarak hizkuntza-aniztasuna aberasten duelako eta, beraz, gutako bakoitza aberasten gaituelako. Euskara, Etxeparek esan bezala, plazan nahi dugu, indartsu eta sendo nahi dugu bere lurralde guztietan.

Euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea: horra gure helburua. Guztion gogoia eta ahalegina eskatzen dituen helburua; helburu ilusionagarria; denoi dei egiten digun helburua: norbanakoei eta kolektiboei, herri aginteei, alderdi politikoei, langileen sindikatuei, enpresari-elkarteei, kirol, aisialdi nahiz kultur arloko elkarteei, gizartearen arlo desberdinetako erakundeei, eta abarri. Gustuko dugun helburua da, gustura hartzen dugun konpromisoa.

Horregatik, herri aginteok eta askotariko gizarte-eragileok elkar hartuta ospatu nahi izan dugu aurten Euskararen Eguna. Euskara eta hizkuntza-elkarbizitza sendotzeko konpromiso bat hartu nahi izan dugu, nork bere neurrikoa, nork bere ahalaren araberrakoa. Horretarako, gure buruari galdera bat zuzendu diogu: “Zer egin dezaket nik euskararen alde?”.

Adierazpen honen sinatzaileok galdera horri erantzun propioa eman nahi diogu, gure esparruan euskara modu edo neurri batean zein bestean indartzeko erantzun bat.

Era berean, herritar guztiak eta gizarte-eragile guztiak gonbidatu nahi ditugu galdera hori bera egitera eta nork bere neurriko erantzuna hausnartzera, guztion ekarpenak baitira baliagarri eta onuragarri euskararen biziberritzerako eta guztion arteko elkarbizitza sendotzeko.

Ospa dezagun, bada, pozik eta harro Euskararen Nazioarteko Eguna. Eta bizi dezagun aurrera begira euskara, gure artean eta egunerokoan, hizkuntza bizia eginez, “Zer egin dezaket nik euskararen alde?” galderari erantzunez eta galdera bera euskal gizarte osoan zabalduz.”

6.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2016ko urriaren 22tik, 2016ko azaroaren 24ra bitarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira 2016ko urriaren 22tik, 2016ko azaroaren 24ra bitarte Alkateak emandako Ebazpenak.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

HIZUNTZA ERREFORTZUA ETA LUDOTEKA

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Udal ludotekak azaroan ireki behar ditu ateak, Euskararen erabilera indartzeko lehentasunarekin 4-12 bitarteko haurrei eskainiko zaie zerbitzua eta izen ematea ikastetxeetan eta udaletxean egin ahal izango da. Azaroa bukatzeko egun bat falta da eta jakin nahiko nuke gaia nola dagoen.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Plikak ireki dira eta esleipena egin da. Enpresak fidantza aurkezten duenean, lanean hasteko moduan dago.”

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Batzordean galdetu nuen eta erantzuna zalantza moduan geratu zen. Beasaingo ume guztiak eskubide berdina dute, zuek ludoteka deitzen diozuen eta gure ustez ludoteka ez den honetara joateko?. Nola egingo da hautaketa?

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Behin eta berriz esan da, hizkuntza errefortzu bezala funtzionatuko duela. Ikastetxeetan izena eman behar da eta ikastetxeek bideratuko dituzte umeak beharraren arabera, plaza azpiko egoitzara eta Murumendiko egoitzara. Erantzun horiek batzordean eman dira eta hau batzordetik pasa ez bada da, atzo ireki zelako azkeneko plika. Pasatuko da batzordetik xehetasun guztiakin.”

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “El servicio estará dirigido a niños y niñas en edades comprendidas entre 4-12 años, con el fin de aumentar el uso del euskera

en la calle. Las inscripciones se podrán realizar en los colegios y en el Ayuntamiento. Galdera zehatza da: nire alabak aukera izango du joateko, bai edo ez?.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ikastolan apuntatu. Espero dut apuntatzea. Denak esaten ari zarete apuntatuko direla. Ez dakit berealdiko ume emana izan dugu orain!. Zorionekoak gu!. Apuntatu ikastetxeetan. Hemen apuntatzen badira eta apuntatu direnak ikastetxeetara bideratu dira eta espero dugu umeei errefortzu hori emango zaiela. Hizkuntza errefortzuaren beharra hizkuntza politika arloak aztertuko du enpresarekin, ikastetxe bakoitzean. Desgraziz Aitor, hire alabak eta nire semeek hizkuntza errefortzua edo euskaraz bizitzeko guneak eraiki behar zaizkiela zeren eta, (hori da behintzat datuak ematen duena, hizkuntzaren ezagutza handitzen doan heinean ez doa erabilera era berdinean. Hire alabak eta nire semeek, hik eta nik nahi baino lehenago ikasi eta jardungo dute erdaraz. Hizkuntza errefortzua behar dutenei eskainiko zaizkie eta hori ikastetxeen bidez egingo da. Berrio esaten dizuet, apuntatu ikastetxeetan eta enpresakoei harremanetan jarriko dira errefortzu hori emateko.”

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Orduan, guk batzordean salatu genuen bezala, ludoteka zerbitzua deuseztatu egin da udal honetan eta hemendik aurrera ez da zerbitzu hori emango, ez?.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Hizkuntza errefortzuagatik ari zara?.”

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Ludoteka zerbitzua jadanik ez da emango, ez?.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Hizkuntza errefortzua emango da plaza azpian, aisiarekin lotuta baina eskola ordutik kanpo. Hori da baldintza pleguan adierazten dena eta hori da oinarrian gobernu honek nahi duena, hizkuntzaren erabileraren aldaketak ikusita.”

Garbiñe Zurutuza andreak (Beasaingo EH BILDU): “Alkatetza lortu zenutenean eta batzordeen antolaketa proposatu zenutenean, kultura eta euskara banatzea erabaki zenuten. Kultura alde batetik eta hizkuntza politika batzordea bestetik. Hizkuntza politika batzordean esan zitzaigun, euskara aholkularitza batzordea martxan jarriko zela. Guk eskatu genuen batzorde hori egiten zenean deialdia bidaltzeko. Urtarrilean egin zen, ez zitzaigun deitu. Azaroan gaude eta asmoa izan zen urtean bitan biltzea. Guk gainera behategiaren bitartez, herritar baten kexa jaso genuen. Batzordean kexa hau, Osakidetzaekin batera bideratzeko eskatu genuen (martxoan uste dut). Oraindik ez dugu erantzunik jaso. Ez dakit egin den ala ez, baina ez zaigu deitu. Jakin nahiko nuke euskara batzordearen egoera zein den.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Bere garaian batzordean bertan, hizkuntza politika batzordean izendatu ziren, euskara aholkularitza batzordea, zeintzuk izango ziren hizkuntza politikako ordezkariak. Alderdi politikoak ez ziren sartu. Aurrenekoa egin zen eta ondoren batzorde batean eta aktan horrela jasota dago, EH BILDUk eskatu zuen bertan egon nahi zuela. Esan zitzaion ez zegoela inolako eragozpenik. Hurrengoa egiten denean (azpibatzerdeak biltzen ari dira, baina batekin elkartzeko arazoa dago), aholku batzordea egingo da eta abisatuko zaizue.”

Garbiñe Zurutuza andreak (Beasaingo EH BILDU): “Eskatu genuen baita ere, azpibatzerdeko deialdiak pasatzea. Hamika hilabete pasatu dira eta pentsatzen dut denbora honetan bilduko zinetela!”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Uste dut azkeneko batzordean horretaz teknikariak informatu zuela zein bilera egon ziren.”

Garbiñe Zurutuza andreak (Beasaingo EH BILDU): “Ez zitzaigun deitu berriro ere!”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Nik pentsatzen dut deialdia denei bidaltzen zaiela, zuei barne, baina argitzeko arazorik ez dago. Nahi duzunean etorri. Bigarrenengo galderari erantzunez, nik uste dut Osakidetza zuzendariak berak erantzun zizula eta etxe barruan pausoak eman behar zitutela. Hurrengo batzordean galdetuko diogu zein pauso eman dituzten, ez ordutegiari dagokionean baizik eta amagileei dagokienean, zeren eta nik uste dut ez zeudela behar adina. Esan zuten saiaturko zirela taldeak beste era batetara banatzen kontuan hartuz hizkuntza. Orduan erantzun zitzaizun. Ikusiko beharko da denboran nola gauzatzen ari den.”

Garbiñe Zurutuza andreak (Beasaingo EH BILDU): “Ez zitzaidan hori erantzun, Osakidetza zuzendaria ez da bileretara etortzen. Esan zitzaidana izan zen Osakidetza zuzendariarekin batera bildu zinetela gaia jorratzeko. Zein oztopo zeuden esan zitzaigun eta baita ere irtenbide bat emango zitzaigula. Martxotaz hitz egiten ari naiz eta azaroan gaude. Eskatzen zena zen, haurdunentzat ematen diren ikastaroak ematen zuen emagina euskalduna izanda, zergatik erdaraz ematen ziren, joaten ziren emakumeak ere euskaldunak izanda. Arazoa ez da hain handia. Nahi izan ezkerro, irtenbidea oso erraza da. Horren erantzunik ez dut oraindik jaso eta bi edo hiru aldiz galdetu dut.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Aktetan begiratuko dut baina Osakidetza zuzendaria, aholkularitza batzordean dago eta Osakidetza zuzendariak erantzun zuena lehen esaten dena da. Borondate hutsetik haratago zihoan arazoa. Taldeak egiteko nahiko emagin ez dagoela badirudi eta joaten diren emakumeen arabera, eragozpenak dituzte ikastaroak euskara hutsean egin ahal izateko. Hori zen berak eman zuen erantzuna. Begiratuko dugu eta akta bidaliko dizugu.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko zortziak eta hogeietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.